

Bixente Serrano Izko

Anizkun eta bakarra?



ne buruan ideia zaharra izan arren, orain gutxi idatzi dut bertze paper batean: harako XIX. mendeko espainiar liberalismo zentralista hari trenbide sare erradiala izan zitzaiona, horixe zaio gaurko demokrazia kaskar honi alderdibitasuna. Hots, burdinazko errail politikoen sare erradial berria, “Espainia anizkun eta Bakarra” itxuratzeko autonomia-estatu honetan. Ez zaigu komeni ahanztea zein izan zen Fragaren asmoa, Franco hil berria, Arias Navarroren gobernu kontinuitate eta *aper-turistako* kide zenean. Gustavo Muñoz Barrutiak gogorarazi nahi izan digu *Geronimo de Uztari* historia-aldezkarian, 23/24. zenbakian: Arias Navarroren garaietan “Manuel Fraga Barne Ministroak planteatu zuen plana izan zen, agian, argiena: hots, erregimen bat, legitimitate demokratikoan oinarrituko zena, alderdi politikoekin, baina beti ere jokoz kanpo utziz komunistak eta ‘separatistak’, Canovasen sistemaren antzeko zerbait ezartzeko esperantzan”. Hau da: alderdi zenbaitetarako askatasun mugatua, eta gobernu osatzeko gaitasuna biri bertzerik ez emanik, zeini bere txandan.

Ez zuten hura bere horretan onartu orduko hartan, ez Suarezek berak trantsizioa bideratu zenean, ez ordura arte frankismoak jazartitako bertze alderdiek. Eta estatu eremuan, bai, halako alderdibitasun bat ezarri baldin bazen ere *de facto*, indartsu hasi ahal izan ziren alderdi nazionalistak *periferiako* nazioetan. Hain indartsu, non, askotan, gobernu zentralaren osaera bat edo bertzea ahalbidetu/behartu duten, zeini, PPri edo PSOERI, sostengua eman dioten.

Baina, kontuz, ez zen hil izan asmoa Fragaren ametsetan, eta, frankista ohiak eta ondorengoak berriro bildu zirenean PP alderdian, hara non hasi ziren, Aznarren eskutik, galego frankistarena berres-



JOSU SANTESTEBAN

kuratzen: lege berri batekin amets egin zuten, zeinarekin estatu eremuko botoetatik %10-12 gutxienez lortu beharko zuten edozein alderdik gobernu zentralaren osaera baldintzatu ahal izateko. Horrela segurtatuko zutelakoan kolore bakarreko gobernu espainiar nazionalista bat, dela PP dela PSOERena, gehiengo absolutuaren beharrik gabe.

Lozorroan gelditu bide zen asmoa Aznarren porrotaren ondorioz. Baina, halako enpatia bat dela kausa edo, badi-rudi kili egiten hasi zitzaiera PSOEko batzuei burmuinean. Eta, Pepe Blancoren inspiraziopean (ai, ene!, galego espainiarzale amorratu bat gehiago), bertze bide batetik hasi dira, eta arrakastatsu mementoz, euren alderdibitasuna *de facto* ezartzen *periferiako* nazioetan ere: behar dutenean eta ahal den heinean, bi alderdi

zentralistek bat eginez gobernu autonomikoetan, bertzeak baztertze aldera, justiziaren erabilera politikoa ere tartean, inongo eskrupulurik gabe.

Bitxia da zein gutxitan salatzen den alderdibitasuna: ia bakarrik hauteskundu- deetan, arazoa boto-ehizaren kontu hutsa izanzen bailitzan. Askoz sakonagoa da arazoa: demokraziaren prostituzioa ala haren gozamina, estatu eredu, ustelkeria ala zerbitzu publikoa, espainiar nazionalismo inposatzailea ala naziozintza eta kulturzintza

ezberdinak, alderdien jardun mugatua ala librea, ideologiaren zilegitasuna ala itxurakeria...; hori guzti hori dago jokoan alderdibitasunarekin.

Noizko, horren aurkako estrategia orokor bat, *periferiako* nazio bakoitzetik eta euren arteko ekimen bateratuetatik diseinatu eta gauzaturik? Canovasen garaietara itzularaz gaitzaten utziko al diegu?

Hara! Berriro ere, horrelako hutsalke- riez kezkatutik, ahaztu egin zait independen- tziaren eta mintzatzea! ■

Lozorroan gelditu bide zen asmoa Aznarren porrotaren ondorioz. Baina, halako enpatia bat dela kausa edo, badi-rudi kili egiten hasi zitzaiera PSOEko batzuei burmuinean. Eta, Pepe Blancoren inspiraziopean (ai, ene!, galego espainiarzale amorratu bat gehiago), bertze bide batetik hasi dira, eta arrakastatsu mementoz